

## **BALIABIDEAK:**

Funtsezko baliabideen bidez lortzen da bezeroarekiko harremana mantentzea, diru sarrerek izatea edo balorezko proposamena garatzea. Hau da, proiektua garatzea eta harremana mantenduz, diru sarrerek mantentzea. Baliabide horiek mota desberdinetakoak izan daitezke. Zehazki, fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak:

Baliabide fisikoei dagokionez, bulegoa eta bertako materiala edukitzea komeniko litzateke. Hau da, bulegoa lankide guztiek batera lan egiteko eta bertan gure bezeroen eta alokatzen duenarekin kontantuan jartzeko balio du.

Baliabide intelektualen inguruan berriz, diputazioaren diru lagutzen inguruan jakin behar dugu, web gunea kontrolatzen jakin behar dugu, bezeroekin kodeatzen jakin behar dugu, etxebizitzaren alokairuekin erlazionaturako legeen inguruan jakin behar dugu...

Aurretik aipaturiko bezala, web-gune sortzaile bat eta aholkulari bat beharko genuke. Hortik harago, soilik guk egingo genuke enpresan lan. Konkretuki horiek giza baliabideak dira.

Azkenik, finantza-baliabideei dagokionez, diputazioak eta udaletxeak ematen dituen dirulaguntzen inguruan ohartu eta informatu beharko ginateke. Beharbada, guri lagunduko diguten diru laguntzak egon daitezkelako. Bestalde, hasiera batean diru guztia guk jarri beharko genuke eta garbi dago, proiektua arrakastatsua izaten bada bertatik amortizatuko dugula. Horrekin guztiarekin, alokairua, web-gune sortzailea, bulegoko materiala ordainduko genuke eta aldi berean kostu horiek guztiak amortizatu.